



Usurbilgo Udala

2021EKO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko irailaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

1.1.- 2021/03/25EKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2021/03/25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

1.2.- 2021/04/29KO OHIKO BILKURAKO AKTA.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2021/04/29ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

1.3.- 2021/05/27KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2021/05/27ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO UZTAILAREN 12TIK IRAILAREN 24RA (2021/613-2021/827).

Alkatetzak 2021eko uztailaren 12tik irailaren 24ra bitartean (2021/613-2021/827) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2021/828 DEKRETUA BERRESTEA: “GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNE BERRIA” DERITZONARI LOTUTAKO INGURUMEN BAIMEN BATERATUAREN ALDAKETA EZ FUNTSEZKOA DELA EBAZTEN DUEN INGURUMEN SAILBURUORDEAREN 2021EKO OTSAILAREN 12AN EMANDAKO ERABAKIA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIALDIKO AUZIBIDEAN ERREKURRITZEA.

Alkateak azaldu du gai hau ez dela berria, plenoan gai honen inguruan jardun izan direla. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak 2021eko otsailaren 12an ebazpen bat kaleratu zuen non esaten duen Zubietako errauste plantan hondakin industrialak kudeatzeko ez duela funtsezko aldaketatzat jotzen eta, beraz, ez duela beharrezkoa ikusten erraustegiak daukan ingurumen baimen bateratua eguneratzea.

Alkateak berak bere garaian aipatu zuela dio udal gobernu honek ebazpena irakurrita zalantza asko eragiten zizkiotela, batez ere ulertzen zutelako ez zela edozein aldaketa planteatzen dena, baizik eta hiri hondakinak kudeatzeko diseinatuta dagoen azpiegitura batetara hondakin industrialak eramatea, tartean hondakin industrial arriskutsuak eramatea ulertzen zutela badela funtsezko aldaketa bat.

Hori horrela ulertuta, aipatu zuten Udalak errekurtsioa aurkeztuko zuela ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa, eta horretarako Udalak gai hauetan oso aditua den Jaime Doreste abokatu madrildarra kontratatu zuela adierazi du.

Aipatutako errekurtsioa aurkezteko administrazioak hiru hilabeteko epea zuen eta tamalez Jaurlaritzaren aldetik jaso dutena isiltasuna izan dela esan du. Isiltasun horren aurrean eta prozedurarekin jarraituz administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztuko dutela jakinarazi du. Erabakia alkate dekretuz hartu dela eta orain osoko bilkurari dagokiola esan du erabaki hori berrestea.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du honen alde ez dutela egingo. Batetik, goizean honen inguruan idazkariarekin hitz egin duela eta esaten dela dio alkate dekretuz hartzen dela erabakia baina berme juridikoagatik ekartzen dela plenora. Bestetik, eskuartean duten informazioaren arabera aldaketa ez da funtsezkoa. Era berean, uste dute udal honek herritarren baliabideak ez dituela erabili behar egunerokoan onurarik ekarriko ez dion gauzetan, zeren hemen ere 2018an bezala beste diru mordo bat joango da eta beraiek ez daude ados.

Alkateak adierazi du hain justu auzibide hau zabaltzen badute herritarren onurarengatik eta herritarren osasun eta ingurumenaren zaintzagatik egiten dutela azpimarratu du. Funtsezkoa den edo ez orain epaitegi batek esango duela dio, eta beraiek horrela denik zalantzak dituztela gaineratu du. Administrazio batek beste administrazio bati aurkeztutako errekurso batean isiltasunarekin topo egitea adierazgarria dela esan du eta baimen hori emateko eman ziren argudioak bere horretan daudela ulertzen dute.

Errekurtsua aurkezterakoan esan zuten bezala, alkateak aipatu du motibazio falta izugarria zegoela ebazpen horretan, administrazioari dagokio bere erabakiak arrazoitzea eta ebazpen horretan ez dela arrazoi bat bera ere ematen esateko zer den aldaketa esanguratsu bat.

Jarraitu du esanez ahal dela auzibideak sahiestu egin beharko liratekeela, baina kasu honetan jauzi hau egin bazuten da kezkatzen dituztelako erraustegira eraman nahi diren hondakinak, ezin dutela ahaztu dio Zaldibar.

Batzarkideek, gehiengoz, alkatearen 2021/828 dekretua berretsi dute.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa eta Itziar Basterrika Unanue.

Kontrako botoak: Josune Urkola Larrarte eta Carlos Pérez Fraisoli.

Abstentzioa: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2022RAKO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak adierazi du aurrekoan Ogasun batzordean aritu zirela 2022rako ordenantza fiskalen inguruan. Bertan, udal gobernuak planteatzen dituen aldaketak eta aldaketa horien arrazoiak aurkeztu zituztela eta gaurko bilkuran ere horiek azalduko dituela esan du.



Usurbilgo Udala

Garai hau izaten dela dio udal ordenantzak eztabaidatu eta onartzekoa. Ordenantza fiskalak udal zergak, tasak eta prezio publikoak arautzen dituela eta beti horien helburua izan behar duela administrazioak herritarrei ahalik eta zerbitzu publikorik onena eta kalitatezkoena eskaintzea. Legealdiaren erdia izaki, legealdi honetako aldaketa sakon edo esanguratsuena egitea planteatzen dutela adierazi du. Udal gobernu hau iritsi berritan, 2020 urtean zuhurtziaren printzipioa erabilita urte hari zegokion KPIren igoera aplikatzea erabaki zutela esan du, hurrengo urtean testuingurua erabat aldatu zela dio pandemiak eraginda, ezohiko egoera batean egonik zergak eta tasak izoztea erabaki zutela esan du ulertzen zutelako herritarrek bazituztela zailtasun ekonomiko anitz. Pandemia egoera honetan beraien begirada kolektibo eta herritar zaurgarriengan jartzen saiatu direla esan du, 2022ko aurrekontuak ere norabide horretan landu zituztela gaineratu du, hainbat dirulaguntza lerro berri abiatu zituzten eta 2022ko ordenantza fiskaletan planteatzen dituzten aldaketek ere helburu hori dutela azpimarratu du. Hau da, okerren pasatzen edo zailtasun gehienak dituztenei arintzeko kasu honetan zerga, tasa eta prezio publikoen alorretik. Oraindik ez dakitela dio pandemia honek datorren urteetarako zein ondorio ekarriko dituen eta ezohiko egoera honek ezohiko neurriak hartzea ekartzen duela.

Zergen politikak helburu bat izan behar duela ulertzen dute, hain zuzen ere, aberastasunak birbanatzea, gehiago dutenek gehiago ordaintzea, gutxiago dutenek gutxiago ordaindu ahal izateko. Udalak dituen tresnak baliatuz, udal honen zerga politika eta 2022ko ordenantza fiskalak helburu horri begira jarri nahi dituztela azpimarratu du.

Beraz, banatu den dokumentazioan jasotzen den moduan, irizpide orokor gisa planteatzen dena da zerga, tasa eta prezio publikoak KPIren azpitik igotzea, hau da, azpiko inflazioa erabiltzea, %1,5.

Jarraian, azpitik igotzearen arrazoia dela dio lehen esan duen bezala ezohiko egoera batetan daudela eta horren adierazgarri ere badela dio KPIa zenbat igotzen den.

Hala ere, bi salbuespen daudela esan du, batetik, kirol arloko Buruntzaldean ekaina inguruan adostu zenari jarraituz kirol zerbitzuetako tasak eta abonua %0,9 igotzeko direla dio eta, bestetik, hondakinen tasa ere %10 inguru igotzeko dela, azken honen inguruko azalpenak gero emango dituela zehaztu du.

Aldaketa nagusia hobarrietan datorrela adierazi du. Pandemia testuinguru honetan hobariei arreta berezia jarri nahi izan diotela esan du eta 2022tik aurrera hobariak jasotzeko eskubideak eta aukerak nabarmen zabalduko dituztela azpimarratu du. Era berean, hau txukun jasotzeko hobarien inguruko ordenantza propio bat sortu dela gaineratu du, hamaikagarrena hain justu ere eta hau aplikagarria izango dela dio ia tasa eta prezio publiko guztietan.

Jarraian, alkateak nabarmendu nahi izan du neurri honen helburua dela herritar denei, edozein dela ere bere errenta maila, Udalak eskaintzen dituen eskaintza eta zerbitzu publikoetarako sarbidea erraztu behar zaiela. Gaineratu du egin dituzten aurreikuspenen arabera hobari hauek eskatzeko aukera ia 4.000 herritar inguruk izango dutela eta datu hori ateratzeko Foru Aldundiko Ogasun departamenduaren iturrietara jo dutela zehaztu du, 2021eko errenta aitorpeneko datuetara hain zuzen ere. Hitzegiten ari direla dio gazteez,



Usurbilgo Udala

pentsionistez, RGIa kobratzen duten herritarrez, errenta baxuko herritarrez, herrira datozen inmigrantez. Gainera eroldaren ikuspegitik ez dutela baldintzarik jarriko esan du, Usurbilen errolatuta egotea baldintza bakarra izango dela esan du.

Nola finantzatuko denari buruz esan du lehen aipatu duela gehiago dutenek gehiago aportatzea, eta hori badela elkartasun printzipio bat, justifikia sozialeko printzipio bat azpimarratu du. Udalak dituen baliabideak ez direla horrenbeste baina kokapen indizearekin jokatu dutela esan du, modu horretan kokapen indizea aldatuz eta herriguneetan ez dauden enpresei aldatuz, horrek zerga aldetik igoera bat izatea ekarriko duela zehaztu du. Horrela, igoera horrekin hobari anbizioso hauek ere finantziatu nahi dituztela esan du.

Xabier Olano kontuhartzaileak adierazi du hobarien taula eguneratu egin dutela Ministroen Kontseiluak gutxieneko soldata igotzearen ondorioz, 950 eurotik 965 eurotara igota. Jarraian, datu eguneratuak dituen taula banatu die batzarkideei.

Alkateak esan du lehen ez duela aipatu tasei dagokionez zerbitzuaren kostearen sarreren eta gastuen azterketa ekonomiko bat egin dela eta uraren kasuan ikusi dute sarrerak eta gastuak orekatuta daudela, estolderiaren kasuan aldea handixeagoa dela baina onargarria eta hondakinen kasuan desoreka nabarmena dela. Hori dela eta, aurten neurriak hartu dituztela esan du eta ez dela kasualitatea dio hondakinen tasa igotzearen erabakia testuinguru honetan hartzea, justu hobariak zabaltzeko erabakia hartu duten garaian. Beraz, nahiz eta tasa igo herritar askoren kasuan ez dutela igoera nabarmendu ere egingo esan du eta batzuen kasuan gutxiago ere ordainduko dutela.

Hondakinen tasak bi zati dituela azaldu du, batetik, zati finkoa eta hor 86 euro izatetik 94,6 euro ordaintzera igaroko dira etxebizitzak eta, bestetik, zati aldakorra. Azken honetan errefusa unitate bakoitza 1 euro izatetik 1,5 euro izatera pasako da eta, bestetik, beti ere gaizki egiten duenari zamatzeko edo kutsatzen duena gehiago ordaintzeko printzipio horri jarraiki, gaizki ateratzen duenari hirukoitza kobratu beharrean boskoitza kobratuko zaiola.

Gaineratu du atez atekoa ezarri zenetik inoiz ez dela igo hondakinen tasa, nahiz eta gastuek gora egin duten.

Bestalde, nahiz eta igoera hau kontutan hartu, Usurbilek inguruko herrietako tasarik baxuenetariko bat izaten jarraitzen duela adierazi du, baina aldi berean gaikako bilketa handiena duen herria izaten ere jarraituko duela, %87ko gaikako bilketaarekin. Eraitza bikain hori lortzen dela dio kalitatezko zerbitzu bat emanez eta herritarren konpromisoarekin.

Josune Urkolak adierazi du ordenantza fiskal hauetan abstenitu egingo direla. Ados daudela dio nahiz eta KPIa %2,9 igo, %1,5eko igoera aplikatzearekin. Hala ere, alkateak aipatu dituen datu eta zenbaki horietan, guzti horrek ze ondorio izango duen falta zaiela esan du. Hobarien finantziazioa nola izango zen batzordean ez zutela aipatu baina gaur alkateak aipatu duela Jarduera Ekonomikoaren Zerga bitartez izango dela, baina hala ere ez dakitela dio hori zenbat den edo ze inpaktu izango lukeen udaleko kontuetan.



Usurbilgo Udala

Xabier Olano kontuhartzaileak erantzun dio neurri bat martxan jartzen denean eta neurri horren erabiltzaileak hainbeste izan daitezkeenean, neurri horren eragina edo inpaktua segun zenbatek erabiltzen dutenaren baitan dagoela zehaztu du. Teorian 4.000 herritarrek erabiliko balute, inpaktua dexentea izango litzatekeela dio eta seguraski Jarduera Ekonomikoaren Zergaren %20ko igoera ez litzatekeela nahikoa izango zehaztu du. Baina airean dagoena da, balizko 4.000 onuradun horietatik zenbat izango diren benetan onura hori eskatuko dutenak, dokumentazio guztia aurkeztuko dutenak, etab. Egiten duten kalkulua da herritar askok jaso dezaketen onura nahiko txikia izan daitekeela, eurotan neurtuta agian 10-15-20 euro besterik ez da, eta ez dakitela dio herritar askok hori jasotzeko prozedura guztia martxan jarriko ote duten. Aldiz, beste zenbait kasutan onura askoz nabarmenagoa izango dela dio eta lortuko duten onuragatik tramite administratibo guztiak egiteko animatuagoak egongo direla. Beraz, aurrez egin ditzazketen estimazio guztiak zalantza tarte handi bat daukatela esan du.

Josune Urkolak galdetu du aurreikuspen bat egina egongo dela.

Xabier Olanok erantzun dio zenbaki batzuk buruan badituztela baina klabea dela dio zenbat herritarrek eskatzen duten.

Alkateak erantsi du kontu honetaz ari zirenean berak kontuhartzaileari galdera bat egin ziola, Udalaren diru-sarreraren zer portzentai diren tasak, zergak eta prezio publikoak. Udalaren diru-sarrera nagusia nabarmen Foru funtsa dela eta tasak %15 inguru direla aipatu du. Nahiz eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren igoerarekin ez estali, hori erabaki politiko bat dela esan du, inbertsioetarako sarrera gutxiago eta udal gobernuak estaldura soziala da bermatu nahi duena. Ikusi beharko dela dio baina neurri honi epe bat eman beharko zaiola dio ondorioak ateratzeko.

Josune Urkolak esan du ados dagoela esaten den guztiarekin baina berak eskatzen duena da zein inpaktu izango duen, honek eragina izango duela dio familiengan baina baita enpresengan ere, eta zenbat izango litzatekeen jakin nahiko luketela dio. Kontuhartzaileari zuzenduz esan du txosten oso bat faltan botatzen dutela.

Kontuhartzaileak erantzun dio informazio asko banatu dela, legez behartuta daudena baino askoz gehiago, baina agian erabakia hartzeko garaian informazio gehiago izatea ere zilegi dela eta agian aholkagarri baita. Hemen kontua dela dio hobariak izango duten kalkuluei buruz estimazioak egitea "kolunpio" batean sartzea dela, jakin gabe zenbat herritarrek eskatuko duten, datuak batetik bestera ikeragarri aldatu daitezkeela esan du.

Hala ere, jakinarazi du azterketa zehatzagoa egin dutela Jarduera Ekonomikoaren zergari buruz. Zerga honetan Usurbilgo udalerrian alta emanda dauden jarduerak izugarri direla



Usurbilgo Udala

esan du, 1.100-1.200 inguru, baina jarduera horretan fakturatzan dutena milioi bat euro baino gutxiago baldin bada, salbuetsiak daudela eta ez dutela ezer ordaintzen zehaztu du, hau da, aipatu dituen 1.100-1.200 horietatik 1.000 inguruk ez duela ezer ordaintzen. Ordaindu behar dutenak ere urtetik urtera aldatu egiten direla esan du segun fakturazioa nola doan. Orain esportazioak gora doazela, barne produktu gordina gora doala, salmentak ere gora doazela, beraz badirudiela dio fakturazioa ere neurri batean gora joango dela eta hurrengo urteko matrikulan, hau aplikatuko denean, gehiago izango direla.

Bestetik, kokapen indizearen arabera bereizten dituztela esan du kasko diferenteetan daudenak, eta hauei jeitsi egiten zaiela dio 1 kokapen indizetik 0,8ra, baina kaskoetan daudenak eta milioi bat baino gehiago fakturatzan dutenak oso gutxi direla zehaztu du, 15-20 inguru. Aldiz, milioi bat baino gehiago fakturatzan dutenak eta beste kaleetan daudenak, hauek kokapen indizea 1 zuten eta 1,20 izango dutela zehaztu du eta hauek 80-90 inguru direla zehaztu du. Baina azken hauetan ere izugarritzko diferentziak daudela esan du, hauetan 4-5-6 enpresa daudela dio sarrera guztien erdia baino gehiago ordaintzen dutenak. Gaineratu du bere ustez enpresa hauek ordaintzen dutenarekin %20ko igoerak ez diela graziaz egingo, baina seguraski enpresa handi horiek eramangarriagoa izango dutela.

Beraz, kontuhartzailearen ustez honek jarduera ekonomikoari ez dio kalte handirik egingo.

Aldi berean, herritarrei hobari batzuk eman nahi bazaizkie eta hori nonbaitetik finantziatu nahi bada, beste aukera askoz gehiago ere ez dagoela uste du. Hala ere, besterik bururatzen bazaie esateko eskatu die.

Josune Urkolak esan du ez dela izen-abizenak eskatzen ari, baizik eta honek izango duen eragina, ze ideia oso ona dela uste du baina ez dakitela dio ze ondorio izango duen.

Beñat Larrañagak esan du Josune Urkolak bi aldiz aipatu duela eta oker dabilela uste du esaten duenean kokapen indizearena batzordean ez zela aipatu.

Josune Urkolak erantzun dio ez duela hori esan, batzordean kokapen indizearena bai aipatu zela baina ez zela aipatu dio hobari horiek finantziatuko zirela Jarduera Ekonomikoaren Gainerako Zergarekin.

Alkateak esan du aldaketaren muina hori dela eta bere ustez aipatu zutela.

Beñat Larrañagak adierazi du gai honetan adostasunik ez izatea tristura ematen diola, non argia eta nabaria den herritarrak izango direla honen onuradun zuzenak. Enpresen kasuan, inorrek ez duela gustoko gehiago ordaintzea, baina lehen alkateak ondo adierazi duen bezala, egoera berezi batean neurri berezi bat hartzen da eta aberastasunaren banaketa printzipioa oinarri hartzen da.



Usurbilgo Udala

Kokapen indizeari buruz gaineratu du beste herri batzuetan ere aplikatzen dela, Donostian adibidez, eta inorrek ez dezala pentsatu dio enpresen kontra jotzen ari direla edo ez dituztela babestu nahi.

Josune Urkolak esan du eman zaion erantzunaren arabera badirudiela berak esan duela kokapen indizea aplikatzea gaizki iruditzen zaiola eta hori ez dela horrela.

Errepikatu du bakar-bakarrik esan duela ez dakitela ze inpaktu izango duen. Azpimarratu du hasieratik esan duela ideia ona dela.

Patxi Suárezek hitza hartu du eta adierazi du berak hasieratik ordenantza fiskalak izoztea eskatu nahi zuela, badakiela KPIa igoko dela eta atzo bertan jakin zutela dio irailean KPIa igoko dela. Beste alde batetik, badakiela esan du defizita dagoela diru-sarrera eta irteeren artean udalak ematen dituen zerbitzuei dagokionez, eta Udalak hori bere gain hartzea begi onez ikusten duela esan du. Beste momentu batean alde bozkatuko lukeela esan du, hobariekin adibidez erabat ados dagoela esan du baina oraindik pandemiatik ateratzen ari direla eta uste du ez dela egokiena 2022an tasak eta zergak igotzea. Aste honetan behin baino gehiagotan irakurri eta pentsatu ondoren, gauza bera pentsatzen jarraitzen duela adierazi du eta 2022an tasak izoztu egin beharko lituzketela uste du.

Alkateak Patxiri erantzun dio esango diola legealdi honetan noiz iritsiko den momentua alde bozkatzeko. Ezkerreko alderdi bat izanik eta egiten den planteamendua, hau da, igoera KPIaren azpitik izatea eta hobarietan egin den plantemanedu anbizioso balorean ez jartzea harrigarria iruditzen zaiola azpimarratu du.

Jarraitu du esanez benetan pena ematen diola eta tristeza dela udal gobernuak egiten duen planteamendua bere osotasunean ez ikusi nahi izatea alde ez bozkatzeko. Arrazoi bakar bat ere ez dutela eman dio alde ez bokatzeko eta hori oso adierazgarria dela esan du.

Patxi Suárezek adierazi du hobariei balorea eman diela, hau da, hobariak ondo iruditzen zaizkiola esan omen du, soilik uste duena da 2022a ez dela momenturik egokiena zergak igotzeko.

Beñat Larrañagak adierazi dio Patxiri alkateak esan duen bezala argudio ahulak direla kontra egiteko eta posizio horretatik komodoa den eskaera bat egiten ari dela uste du.

Josune Urkolak adierazi du argudioak ahulak edo indartsuak izan beraienak direla, gustatu edo ez gustatu.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Ogasun Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Gobernu taldearen ordezkari gisa, 2022 urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu du Alkateak, 2021ko irailaren 23an egindako Ogasun Batzordean. Bere hitzetan, 2022 urterako proposatzen dituzten zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketa nagusiak honakoak dira:

- Batetik, irizpide orokor gisa proposatzen dugu **zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren azpitik igotzea**, hau da, **azpiko inflazioa erabiltzea proposatzen dugu: %1,5**. Kontuan hartu behar da KPIak, aurreko urteekin alderatuz, izugarritzko igoera izan duela azken 12 hilabetetan (%3), nagusiki, argindarraren edota erregaien garestitzeak eraginda. Ondorioz, ezohiko jokabide edo faktoreen eragina kenduta **azpiko inflazioa %1,5koa litzateke, eta horixe da, hortaz, igotzea proposatzen duguna**.
- Irizpide orokorra hori da, baina badaude **bi salbuespen**: batetik, Buruntzaldean adostu zenari jarraiki, kirol zerbitzuetako tasak eta abonuak %0,9 igoko dira; bestetik, hondakinen tasa finkoa %10 igoko dugu, zerbitzuaren kosteei buruz egindako azterketa ekonomikoa aintzat hartuz.
- **Aldaketa nagusia**, dena den, **hobarietan dator**. Izan ere, pandemia giroko testuinguru honetan, hobarietara arreta berezia jarri diegu, eta, beraz, **hobariak jasotzeko eskubideak eta aukerak nabarmen zabaldu ditugu**. Gainera, esan behar da udal zerbitzuen tasa eta prezio publikoetako hobari arautegia sortu dugula. Arautegi honen xedea da Usurbilgo udalerrian tasa eta prezio publiko bidezko zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonak izan dezaketen hobariak jasotzeko baldintzak arautzea. Orain arte ura, estolderia eta hondakinen tasei aplikatzen zitzaizkien hobaria nagusiki, eta datorren urtetik aurrera hobaria **aplikagarria izango da oinarrizko tasa eta prezio publiko gehienetan** (ur-hornidura, hondakinen biltzea eta tratamendua, estolderia, hileta zerbitzuak, udal baratzen erabilera, kiroldegiko abonua eta ikastaroak, haur eskola eta udajolas zerbitzuan) Herritarrei zerbitzu eta eskaintza publiko guztietarako sarbidea erraztu eta bermatu nahi zaie, edozein dela ere bere errenta maila, eta modu horretan usurbildarron aukera berdintasuna bermatu. **Inor atzean edo bazterrean utzi gabe. Justizia soziala.**
- Eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga aldatuko da, kokapen indizea aplikatuz. Horrela, kaskoetan egiten diren jardueren kokapen indizea jaitsi egingo da 1etik 0,8ra. Eta industria gunetan egiten diren ekonomia jardueren kokapen indizea igo egingo da 1etik 1,20ra. Gogoan izan zerga hau soilik milioi batetik gora euro fakturatzen dutenek ordaintzen dutela. Beraz, jarduera txiki guztiak salbuetsita daudela eta aldaketa honek ez diela eragingo.

2022rako proposatzen diren ordenantza fiskalen xehetasunak emanik eta batzordekideen galdera guztiak erantzunik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2022ko Ordenantza fiskalak



Usurbilgo Udala

hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea. Aldeko 3 bozka (EH Bildu) eta 2 abstentzio (EAJ eta PSE) eman dira. Ez da aurkako bozkarik izan.

ERABAKIA

Udalbatzarrak, Ogasun batzordearen irizpena kontutan hartuta, gehiengoaren aldeko botoarekin 2022rako Ordenantza Fiskalak hasiera onartu ditu.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa eta Itziar Basterrika Unanue.

Kontrako botoak: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ONARPENA ETA ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Beñat Larrañagak azalpenak eman ditu eta adierazi du badirela hiru aste inguru udalerrri guztietako zinegotzien artean osatutako Beterri-Buruntzako batzorde orokorretik behin betiko estatutuak onartu zituztela mankomunitatearen sorrerarako. Orain udalerrri bakoitzari dagokiola esan du estatutu horiek berrestea prozesuak aurrera egin dezan, gaineratu du horretarako aipatutako batzordea burutu zutenetik bi hilabeteko epea dutela udalerriek. Behin azken udalerrriak berretsi ondoren, hilabete izango dutela dio mankomunitatearen lehenengo batzar orokorra deitu eta mankomunitatea bera eratzeko.

Azken asteetan dinamika nahiko jarraiarekin ari direla dio gobernantza ereduaren inguruko eta langileen perfilaren inguruko ausnarketa burutzen.

Erakunde berri bat denez, udal honen ordezkariak izendatu behar dituztela esan du eta udal gobernuaren proposamena dela dio ordezkariak Agurtzane Solaberrieta eta Beñat Larrañaga izatea eta hauen ordezkoak Lur Etxeberria eta Ainhoa Arrozpide.

Batzordean aipatu zuten bezala eta egindako aldaketen ondorioz, gaur egun Tokiko Garapenaren ardura Ainhoa Arrozpidek daramala esan du, baina mankomunitatearen sorreran hartu beharko diren hainbat eta hainbat erabaki antolaketarekin lotutakoak izango direnez eta orain arteko informazio guztia Agurtzane eta Beñatek daukatenez, momentuz ordezkariak beraiek izatea erabaki dutela esan du. Hala ere, antolaketaren ildo utzi eta benetan mankomunitatea martxan dagoenean seguraski Beñat atera eta Ainhoa Arrozpide sartuko litzatekeela azaldu du.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“ID.12/2019-0075

Aurrekariak

Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) 2017ko urtarrilaren 27an elkarren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, horren xedeetako bat izanik tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu alorrean eskualde mailako egitura bat sortzeko azterketa egitea. Hitzarmen horri esker Beterri-Buruntzako udalak lanean aritu dira eskualde mailako garapen agentzia baten babesean elkartzeko, jarraian adierazten diren udal eskuduntzako zerbitzu eta/edo obren exekuziorako: “tokiko garapen ekonomiko eta soziala, enpleguko politika edo planak, tokiko turismoaren promozioa eta kudeaketa”.

Ikusirik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 4. eta hurrengo artikuluen edukia, eta jakinik arestian aipaturiko herrien arteko elkarlana, azaldutako xedeei dagokienez, onuragarria dela udal honentzat eta bertako bizilagunentzat, baliabide publikoak modu egokiagoan kudeatzeko aukera eskainiko duelako.

2017an sinatutako udalen arteko lankidetzaren ondorioz sortutako Batzorde Kudeatzaileak 2019 otsailaren 13an adostu zuen aipaturiko udalei trasladatzea proposamen bat, Plenoan erabaki zezaten konpromisoa hartzea Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko. Hori horrela, aipatu sei udalen Udaltzat, arestian aipaturiko xedeetarako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko konpromisoa hartu zuten.

Ondoren, espedientea izapidetzeko eratu zen Batzorde Kudeatzaileak estatutuen aurreproiektua onartu zuen 2020ko martxoaren 16ko bilkuran.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 6.1. artikuluari jarraiki, udal guztietako zinegotzi guztiek osatu beharreko Batzarren estatutuen proiektua onartu zuen.

2021eko maiatzaren 13ko datuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatu Foru Arauak eskatutako txostena egin zuen, bertan estatutuetako hainbat artikulua aldatzea proposatzen zuelarik.

Behin txosten horretan adierazitakoak estatutuen testuan jasota, eta 6/2007 Foru arauaren 6.1.1.e) artikuluari jarraiki, aldaketok onartzeko Zinegotzien Batzarra deitu zen, eta 2021eko irailaren 13an estatutu proiektua behin betikoz onartu, batzartutakoen aho batez.

2021eko irailaren 16ko datarekin Udalarik jakinarazi zaio hartuko erabakia eta estatutuen behin betiko testua helarazi.



Usurbilgo Udala

Hori guztia ikusirik, kontuan hartuta aipatu Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txostena eta prozedurari dagokion udal idazkariak emandakoa, Antolakuntza batzordeak 2021eko irailaren 23an egindako bilkuran Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Josune Urkola Larrarte eta Patxi Suárez Pérez zinegotzein aldeko botoekin, aho batez, honako irizpen-proposamen hau egiten dio Udalbatza plenoari:

IRIZPEN PROPOSAMENA

LEHENENGOA: Beterri-Buruntza Mankomunitatearen estatutuak behin-betikoz onartzea.

BIGARRENA: Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako udal ordezkari gisa honako izendapen hauek egitea:

Titularra: Agurtzane Solaberrieta Mesa
Titularra: Beñat Larrañaga Urdanpilleta

Ordezkoa: Ainhoa Arrozpide Landa
Ordezkoa: Lur Etxeberria Gurrutxaga

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ordezkari gisa izendatutako zinegotzietan, Andoain, Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzaileari ematea, azken honetako lehendakariak, behin udalek akordio guztiak hartuta, erabakia eta onartutako estatutuen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- HIRI ANTOLAKUMENTUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALAJAMENDUAK EGITEKO EXEKUZIO OBRAK CONTRUCCIONES MURIAS S.A. ENPRESARI ESLEITZEA.

Lur Etxeberriak gai honi buruzko azalpenak eman ditu. Obrak lizitaziora atera zirela esan du exekuzio proiektuko 1.963.514,12 euroko aurrekontuarekin eta 18 hilabeteko exekuzio epearekin. Lizitazioan lau enpresek parte hartu zutela esan du.

Jarraian, B artxiboan eta C artxiboan baloratu ziren puntuak zeintzuk izan ziren eta enpresa bakoitzak jasotako puntuazioa aipatu ditu.

Lizitazioa puntuazio altuena jaso duen Murias enpresari esleitzea proposatzen dela adierazi du eta obrak urrian hastea aurreikusten dela.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du, hirigintzaren alderdiaz haratago, beraien aurreikuspenak direla 2023 hasieran Txirikorda ireki ahal izatea eta horrek esan nahi duela dio obrak amaitzen direnerako jendeari bertan bizitzera joateko giltza ematea. Beraz, obrak iraun bitarteko urtebete honetan Udalak Txirikordaren erabilera arautzeko ordenatza bat prestatu behar duela adierazi du, bere garaian egin zen partehartze prozesuan finkatu ziren proiektuaren zertzelada nagusien ildotik. Era berean, beste herri batzuetan horrelako esperientziak badaudenez horien berri emateko herrian jardunaldi batzuk antolatu nahiko lituztekela adierazi du.

Josune Urkolak adierazi du Muriasi esleitu zaiola 1.953.312,02 eurotan, baina beti esaten dela BEZ gabe.

Alkateak erantzun dio pleguetan jada aipatzen zela BEZ gabeko kontratazio bat zela, Foru Aldundian egindako kontsulta baten erantzunaren harira.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2021-0054

2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bateginako EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzeke espedienteari onespena eman zion, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu zen eta epe barruan lizitatzailerak hauek aurkeztu ziren:

1. CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.
2. JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS S.L.
3. UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVISER IBÉRICA S.L.U.
4. OBRAS DE CONSTRUCCIONES E INSTALACIONES S.A.

Jasotako eskaintzak aztertu ondoren honako puntuaketa hauek ezarri zituen Kontratazio Mahaia:

LIZITATZAILEA	B artxiboa	C artxiboa	Guztira
CONSTRUCCIONES MURIAS S.A.	44,50	50,02	94,52
JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS S.L.	30,25	45,19	75,44
UTE INDENORT PV, S.L.U.- PROVISER IBÉRICA S.L.U.	23,85	51,00	74,85
OBRAS DE CONSTRUCCIONES E	0*	47,34	47,34



Usurbilgo Udala

INSTALACIONES S.A			
-------------------	--	--	--

Puntuaketa horien oinarri eta xehetasunak Kontratazio Plataforman argitaratuta dauden kontratazio mahaiaren akta ezberdinetan eta eskaintza onenaren izendapen dekretuan jasotzen dira.

Alkateak, 2021eko abuztuaren 26ko 735/2021 dekretua bidez, eskaintza ekonomiko onena egin duena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. dela zehaztu eta errekerimendua egin zitzaion, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan. Emandako epe barruan enpresak eskaturiko agiriak aurkeztu ditu eta Idazkaritza sailetik aldeko txostena osatu da.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu honen organo eskudunari honako erabaki hau hartzeko proposatzen zaio:

LEHENA: CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari esleitzea Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra.

BIGARRENA: 1.953.312,02 euroko gastua baimentzea honako kontu-sailen kontura:

- 1.6000.622.152.01.02.2020 (355.750 euro) - A 1759/2021-
- 1.6000.622.152.01.02.2021 (1.597.562,02 euro) – A 1760/2021-

HIRUGARRENA: CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari dei egitea kontratua 2021eko urriaren 4an sinatzeko eta kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzaileren Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MURIAS S.A., JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS S.L., UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVISER IBÉRICA S.L.U., OBRAS DE CONSTRUCCIONES E INSTALACIONES S.A., Hirigintza saila eta Kontu-hartzailletza sailari ematea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko irailaren 23an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria, Mirari Azurmendi eta Patxi Suarezzen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENNA: CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari esleitzea Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra.

BIGARRENA: 1.953.312,02 euroko gastua baimentzea honako kontu-sailen kontura:

- - 1.6000.622.152.01.02.2020 (355.750 euro) - A 1759/2021-
- - 1.6000.622.152.01.02.2021 (1.597.562,02 euro) – A 1760/2021-

HIRUGARRENA: CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari dei egitea kontratua 2021eko urriaren 4an sinatzeko eta kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MURIAS S.A., JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS S.L., UTE INDENORT PV, S.L.U. - PROVIDER IBÉRICA S.L.U., OBRAS DE CONSTRUCCIONES E INSTALACIONES S.A., Hirigintza saila eta Kontu-hartzailatza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO HIRIGINTZA EZAUGARRIEN ALDAKETA PUNTUALA SUSTATZEKO MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A., GUREAK LANEAN S.A., BALFER NORTE S.L. ETA USURBILGO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO HIGIRINTZA HITZARMENA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA.

Alkateak esan du Hirigintza batzordean honen inguruko azalpen guztiak eman zituztela.

Alkateak adierazi du hitzarmen honek 2018/10/17an Gureak, Elkar, Michelin eta Usurbilgo Udalak sinatutako hirigintza hitzarmena indargabetu eta ordezkatzeko duela, hitzarmen horrek aurreko proiektua arautzen zuelako. Dakiten bezala, Elkar-ek Usurbilgo proiektuarekin aurrera ez egitearen ondorioz ordungo proiektua hankaz gora jarri zela esan du eta arrazoi nagusia eta bakarra Covida izan dela azpimarratu du.

Elkar-en erabakiak proiektua kinka larrian utzi zuela esan du, baina hala eta guztiz ere, urtebeteko epean eta garai ekonomiko zail eta ziurgabe hauetan, gai izan direla dio Zapategin garatu beharreko proiektu industrial honi eusteko eta horri bide emango dion hirigintza hitzarmen hau egiteko.



Usurbilgo Udala

Azpimarratu du bai aurreko proiektuaren bai oraingoaren ernamuinean elkarlana egon dela eta elkarrekin aritzeko prestutasun eta konpromiso horrek ahalbidetu duela hain denbora gutxian egoera iraultzea eta adostasunetara iritsi ahal izatea.

Aurrez esan izan duen bezala, proiektuak aurrera egiteko Elkar ordezkatu zuen enpresa bat ekartzea zen gakoa, eta Gureak-ek hor izugarrizko lana egin duela gaineratu du. Beste enpresa hori Balfer dela adierazi du, Balfer ez dela enpresa finalista bat esan du baizik eta inbertsore bat. Gaur gaurkoz ez dakitela dio Balfer-en eremu horretara ze enpresa edo enpresak etorriko diren.

Helburua, bideragarria izango den proiektu bat egitea izan dela adierazi du, kontestua ez dela soilik Elkar-entzat aldatu, kontestua Gureak-entzat ere aldatu dela, denentzat aldatu dela esan du, beraz, horrek aurreko proiektua aldatzea eskatzen zuela azpimarratu du, egungo egoera sozial eta ekonomikora egokitutako proiektu bat egitea.

Eragile guztiek malgutasunez jokatu dutela jakinarazi du, nolabait orekatzen interes publikoa eta pribatua.

Hirigintza hitzarmen honetan zedarrizten direla dio baldintzak eta konpromisoak.

Bestalde, eremu osoa erabilera industrialerako izango dela zehaztu du.

Ezaugarri urbanistikoei dagokienez, saiatu direla dio aurreko proiektuaren muin edo filosofiari eusten. Kasu honetan ere ez dela poligono industrial itxi bat izango zehaztu du, helburua beti izan dela dio trama urbanoan integratzen diren jarduerak edo espazioak izatea, erabilera ezberdinak ere nahastea eremu horretan, pertsonen joan-etorria erraztea edo bultzatzea, genero irizpideak aintzat hartu direla dio, irisgarritasuna baita ere edo han dauden baliabide naturalak balorean jartzeko planteamendu bat ere egin dela aipatu du.

Hitzarmen honetan zehaztuta geratzen dela esan du, beraienez oso gai inportantea dena eta aurrekoan zehaztuta ez zegoena, jasoko duten %15 hori zenbatekoa izango den, eta hori dela dio 862.000 euro eskudirutan jasoko dutela.

Beste gai bat hitzartu dutena izan dela dio ikusita Zapategiren kokapena zein den, hau da, herrigunetik oso urrun kokatuta dagoela, urbanizazioaren mantenurako eta kontserbaziorako junta bat osatzea 20 urterako. Horrek Udalari gastu bat kentzea ekarriko diola gaineratu du.

Eremu horretan 700 lanpostu inguru birkokatuko direla aipatu du eta nahiz eta birkokapenak izan ulertzen dute lanpostu horiek kontsolidatzeko apostu bat ere badagoela.

Hemendik aurrera zer, alkateak adierazi du prozedura urbanistikoarekin berriro hasi behar izan dutela ordenazioa aldatu dutelako eta proiektua aldatu delako, beraz, arauen aldaketaren prozedurari berriro ekin behar diotela gaineratu du. Hitzarmen honetan jada arauen aldaketako lehen dokumentuko baldintza nagusiak jasotzen direla esan du. Beraien asmoa dela dio azaroko plenora ekartzea arauen aldaketarako lehen dokumentua hasieraz onartzeko.



Usurbilgo Udala

Proiektu honek presa duela azpimarratu du eta ezin dutela denbora gehiago galdu. Hiru alderdien artean kronograma bat ere adostu dutela esan du. Bestalde, arauak behin betikoz aldatu eta gero, Udalak jarraian etorri behar duten txosten urbanistiko guztiak aldi berean onartzeko konpromezua hartu duela gaineratu du. Horrek guztiak esan nahi duela dio ea aukera duten 2023ko hasieran obrak hasteko baimena emateko. Gaineratu du kalkulatzela dela obrek 18 hilabete inguruko iraupena izan dezaketela.

Josune Urkolak esan du alkateak aipatu duela Balfer ez dela enpresa finalista bat, inbertsore bat baizik, eta ez dakitela dio ze enpresa etorriko diren.

Alkateak erantzun dio lehen esan duen bezala kontaktu ezberdinak badituztela baina oraindik ez dutela ezer itxita.

Josune Urkolak esan du galdetu nahi zuela ea baldintzarik badagoen edo edozein motatako enpresa etorri daitekeen.

Alkateak erantzun dio jarduera industrialerako eremua dela eta dagoen baldintza dela ondoan Gureak duela eta honen jarduerarekin bateragarria izan beharko duela.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2018-0388

AURREKARIAK

Plenoak, 2018ko irailaren 25ean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkarlanean Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz ontzat ematea erabaki zuen. Hirigintza Hitzarmena 2018ko urriaren 17an izenpetu zen.

Formalizatutako hitzarmena betez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala bultzatu zen. Plenoak 2019ko urriaren 31ean aldaketarako dokumentua behin behingoz onartu ostean, berau Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera igorri zun. Batzorde honek, 2020ko otsailaren 19an aldeko txostena eman zuen. Hala ere dokumentua ez zen Gipuzkoako Foru Aldundira bidali behin betiko onar zezan.

COVID-19ren egungo pandemiak sortutako inguruabar berriak direla eta, egiturazko eragina izan dute ekonomiaren sektore askotan, oro har, eta bereziki argitalpen-merkatuaren eta



Usurbilgo Udala

kulturaren sektorean. Horren ondorioz, ELKAR Fundazioak proiektuarekin ez jarraitzeko borondatea adierazi zuen, eta GUREAK LANEAN, S.A.k birplanteatu egin ditu bere behar sozialak.

Horregatik guztiagatik, testuinguru horretan, Usurbilgo Udalak gogoeta egin du eremu horretarako ezarri beharreko hirigintza eta gizarte-helburuei buruz, benetako gizarte-premietara eta egungo egoera ekonomikora egokitzeko, interes publikoaren eskakizun aldakorretara egokitzeko eta, horrela, udal-plangintzan islatzeko.

Gaur egun, ELKAR Fundazioak uko egin ostean, BALFER NORTE S.L. erakundea Elkar Fundazioaren lekuan subrogatu da, eta haren eskubide eta betebehar guztiak ordezkatu ditu.

HIRIGINTZA HITZARMEN BERRIA

Gauzak horrela, GUREAK LANEAN S.A. eta BALFER NORTE S.L. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuan MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak libre utzitako gunea erosteko asmoa dute beren jarduerak eta egitasmoa bertan garatzeko.

Egitasmoarekin jarraitzeko GUREAK LANEAN S.A. eta BALFER NORTE S.L. Udalarekin harremanetan izan dira Hiri Antolatzeko Plan Orokorreko Aurrerakinean zehaztutako oinarritzko irizpide eta helburuak kontutan izanik, gunea horren antolamendu berria adosteko.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremua bi gunetan banatzea hobetsi da. Alde batetik, MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak okupatutako gunea: **A-78 (TE) MITXELIN**; eta bestetik, GUREAK LANEAN S.A. eta BALFER NORTE S.L. enpresek okupatuko duten gunea libre: **A-110 (TE) ZAPATEGI**. Horretarako ordea, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntuala sustatu behar da, eta egitasmoa bideratzeko aurretik dagokion Hirigintza Hitzarmena izenpetzea hobetsi da.

Izandako elkarrizketen ondorioz, lau alderdiek, interes publiko urbanistikoa hobetzeko asmoz, ondoko HIRIGINTZA HITZARMENA adostu dute:

Hirigintza hitzarmena USURBILGO udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen A-78 (TE) ZAPATEGI eremurako.	Convenio Urbanístico para el área A-78 (TE) ZAPATEGI de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico de USURBIL
ELKARTU DIRA	REUNIDOS
ALDE BATERTIK	DE UNA PARTE
Agurtzane Solaberrieta Mesa andrea, Usurbilgo Udaleko alkate-presidentea.	Doña Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alcaldesa-Presidenta del Ilmo. Ayuntamiento de Usurbil.
BESTETIK	DE LA OTRA



Usurbilgo Udala

José Alberto Díaz Calatrava
jauna, adin nagusikoa, xxxx.

Martín BALDA GOÑI jauna, adin
nagusikoa, xxxxx.

Iñaki ALKORTA ANDONEGI
jauna, adin nagusikoa, xxxxx.

PARTE HARTZAILEAK

Agurtzane Solaberrieta Mesa
andrea, Usurbilgo Udalaren izenean eta
ordezkaritzan, bertako alkatea-
presidentea baita. Hitzarmen hau
sinatzeko berariaz ahaldundu zen
2021eko XXXXXaren XX(e)ko osoko
bilkurako erabakiaren bidez, non
udalbatzako idazkaria Garazi Etxeberria
San Miguel andrea izan zen. **1.**
ERANSKIN gisa aurkeztu da.

José Alberto Diaz Calatrava,
MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL, S.A.
merkataritzaren erakundearen izenean eta
ordezkaritzan. Erakunde horren IFK A-
20003570 da; Avenida de los Encuartes,
19, Tres Cantos 28760, Madrid da bere
egoitza soziala, epemugarik gabe osatu
zena Donostiako Luis Barreta notarioak
1932ko irailaren 3an emandako
eskrituraren bidez, 1086 protokolo
El Ayuntamiento de USURBIL, con el objetivo de materializar el cumplimiento del presente convenio, se compromete a tramitar y aprobar, dentro de sus competencias, el Proyecto de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de USURBIL para el área A-78 ZAPATEGI, que recogerá las determinaciones de ordenación estructural y pormenorizada que se regulan en el presente Convenio.

Tercera. Respecto al contenido mínimo que debe contener el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias.

El Expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias respecto al Área A-78 (TE) ZAPATEGI, contendrá las siguientes determinaciones urbanísticas esenciales:

1º Delimitación de dos áreas de Ordenación.

Con la finalidad de diferenciar la superficie del área donde actualmente desarrolla su actividad Michelin España y Portugal, S.A, de aquella donde se



eta Balfernorte SL) kokapen berri bat ezartzea planteatzen den eremua bereizteko helburuarekin, aldaketa espedientean lurzoru industrial gisa sailkatuko diren antolamenduko bi eremu sortuko dira, eta azalera hauek izango dituzte:

- A. MITXELIN izena izango duen A-78 eremua, eta bere azalera 70.096,39 m²-ra murriztuko da.
- B. A-110 ZAPATEGI eremu berriak 50.164,32 m²-ko azalera izango du eta, bertan, integratuko dira, A78 (TE) ZAPATEGI gaur egungo eremukoez gain, eremuaren mendebaldean, Lasarte-Oria udalerriko Geltoki kalearen eta Oria ibaiaren artean, dauden hainbat partzela, zeinen helburua den ibaiertzeko eremua eta eremu berriko sarbideak era egokian antolatzea.

Azalaren neurketa topografikoa MUGARRI SLk egin du, eta dokumentu honen 4. eranskin gisa aurkeztu da.

2. Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean MITXELIN A-78 (TE) eremuari dagokion hirigintza eraikigarritasunaren definizioa.

MITXELIN A-78 (TE) eremuari, Arau Subsidiarioen aldaketa espedienteko mugaketa berriarekin, hirigintzako eraikigarritasun hau emango zaio:

plantea un nuevo asentamiento de actividades económicas (Gureak Lanean SA y Balfer Norte SL), en el expediente de modificación se crearán dos áreas de Ordenación clasificadas como suelo urbano industrial, con las siguientes superficies:

- A. El Área A-78 que se denominará MITXELIN, cuya superficie se reducirá a 70.096,39 m².
- B. Área de nueva creación A-110 ZAPATEGI, con una superficie de 50.164,32 m², en la que se integran, además de las incluidas en la actual área A78 (TE) ZAPATEGI, varias parcelas ubicadas al oeste del área, entre la calle Geltoki del municipio de Lasarte-Oria y el río Oria, cuya finalidad es ordenar adecuadamente la zona ribereña y los accesos al nuevo área de creación.

Las superficies han sido objeto de la medición topográfica realizada por MUGARRI, S.L., que se adjunta como anexo n.º 4 a este documento.

2º Definición de la edificabilidad urbanística que corresponde al área A-78 (TE) MITXELIN en el expediente de modificación de Normas Subsidiarias.

Al área A-78 (TE) MITXELIN con su nueva delimitación en el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias se le otorgará la siguiente edificabilidad urbanística:

	Sotoa	Beheko solairua	Beheko solairua % 50	1. solairua	2. solairua	3. solairua	Guztira, m ²
	Planta sótano	Planta baja	Planta baja 50 %	1ª Planta	2ª Segunda	3ª Tercera	Total m ²
EDIF 1		776,04	31,76	839,57	839,57	81,40	2.568,34
EDIF 2		512,27	24,77				537,04
EDIF 3		1.915,83					2.118,68
A				73,75			
B				82,42			
C				46,68			



Usurbilgo Udala

EDIF 4		479,02		209,95			688,97
EDIF 5		201,15					201,15
EDIF 6		24.397,10					29.603,02
S1	921,13						
S2	1.821,57						
A				75,85			
B				602,66			
C				415,72			
D				56,62			
E				940,93			
F				230,41			
G				141,03			
EDIF 7		1.528,59					1.528,59
EDIF 8		820,00		86,93			906,93
EDIF 9		1.886,38		513,81			2.400,19
EDIF 10		5.991,76					5.991,76
A1		25,99					25,99
A2		6,06					6,06
A3		7,58					7,58
A4		8,36					8,36
GUZTIRA TOTAL	2.742,70	38.556,13	56,53	4.316,33	839,57	81,40	46.592,66

4. ERANSKIN gisa aurkeztu da Mugarriren plano topografikoa.

3. Sortuko den eremu berriko hirigintza zehaztapen berrien definizioa: A-110 (TE) ZAPATEGI eremua.

Arau Subsidiarioen Aldaketa espedientean tramitaziorako sortuko den hirigintza fitxa berriko edukia zehazteko helburuarekin, jaso beharko dituen oinarritzko hirigintza zehaztapenak zehaztuko dira, alde batera utzi gabe tramitatzen den hirigintzako dokumentuan egin ahal izango diren egokitzapenak:

- Eremuaren azalera: 50.164,24 m²
- Lurzoruaren sailkapena: Hiri lurzoru finkatugabea.
- Lurzoruaren sailkapen globala: Erabilera industrial
- Partzela pribatuen gehieneko azalera: 30.590 m²
- Okupazioa plantan: 21.050

Se aporta como **DOCUMENTO n° 4** el plano topográfico de Mugarri.

3.º Definición de las nuevas determinaciones urbanísticas del nuevo Área que se crea: Área A-110 (TE) ZAPATEGI.

Con la finalidad de determinar el contenido de la nueva ficha urbanística que se creará para su tramitación en el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias, se procede a definir las determinaciones urbanísticas esenciales que deberá de recoger, sin perjuicio de los ajustes que se puedan realizar en el documento urbanístico que se tramite:

- Superficie del área: 50.164,24 m²
- Clasificación del Suelo: Urbano no consolidado.
- Calificación global del Suelo: Uso industrial
- Superficie máxima parcelas privadas: 30.590 m²
- Ocupación en planta: 21.050



Usurbilgo Udala

- m².
- Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 32.965m²(t)
 - Sestra gainetik: 28.465 m²(t)
 - Sestra azpitik: 4.500 m²(t)
- Partzela pribatu eraikigarrien taula deskribatzailea:

- m².
- Edificabilidad urbanística total: 32.965m²(t)
 - Sobre rasante: 28.465 m²(t)
 - Bajo rasante: 4.500 m²(t)
- Cuadro descriptivo de las parcelas privadas edificables:

PARTZELA ERAIKIGARRIAK	ERABILERA ZEHAZTUA	PROFILA	PARTZELA AZALERA m ²	GEHIENEKO OKUPAZIOA m ²	GEHIENEKO OKUPAZIOA %	ERAIKIGARRI. SESTRA GAINETIK m ² (t)	ERAIKIGARRI. SESTRA AZPITIK m ² (t)	ERAIKIGARRI., GUZTIRA m ² /t
PARCELAS EDIFICABLES	USO PORMENORIZADO	PERFIL	SUPERFICIE PARCELA m ²	OCUPACIÓN MÁXIMA m ²	OCUPACIÓN MÁXIMA %	EDIFICAB. SOBRE/RASANTE m ² (t)	EDIFICAB. BAJO/RASANTE m ² (t)	TOTAL EDIFICAB m ² /t
P.1	Industrial	PB + P1	15.440	10.050	65%	13.065	1.500	14.565
P.2	Industrial	PS+PB + P1	15.150	11.000	73%	15.400	3.000	18.400
BATURA SUMA			30.590	21.050	69%	28.465	4.500	32.965

- Gehieneko altuera: 14 m teilatutako hegalean, alde batera utzi gabe behar funtzionalengatik justifikazioa
- Aparkaleku publikoen kopurua: 59 (gutxi gorabehera).
- Aparkaleku pribatuen kopurua: 1 plaza/100 m²(t) sestra gainetik
- Bizikletentzako aparkaleku kopurua: aldaketa dokumentuan zehaztu beharrekoa.
- Gutxieneko partzela: antolatutako P.1 eta P.2 partzela bakoitza gehienez hiru (3) azpipartzelatan zatitu ahal izango da, 3.000 m²-ko gutxieneko azalera izango dutenak.
- Erabilera publikoen gutxi gorabeherako azalera:
 - Berdeguneen eta espazio publikoen tokiko sistema: 12.815m²

- Altura máxima: 14 m al alero, sin perjuicio de justificación por necesidades funcionales
- Numero de aparcamientos públicos: 59 (cifra aproximada).
- Número de aparcamientos privados: 1 plaza/100 m²(t) sobre rasante
- Numero de aparcamientos para bicicletas: a definir en el documento de modificación.
- Parcela mínima: cada una de las parcelas P.1 y P.2 ordenadas se podrá dividir en un máximo de tres (3) subparcelas con una superficie mínima de 3.000 m².
- Superficie aproximada usos públicos:
 - Sistema local de zonas verdes y espacios públicos: 12.815m²



Usurbilgo Udala

- Tokiko sistema eta, oro har, bideak: 5.330m²
- Tokiko ibai sistema: 1.150m²
- Landaredia: 1 zuhaitz /100m²(t)

Laugarrena. Eremuko hirigintzako lagapenak egiteko eta urbanizazio obrak ordaintzeko betebeharren edukia

Michelin España y Portugal SAK adierazten du dagokion hirigintzako eraikigarritasun guztia A-78 (TE) MICHELIN eremuan gauzatuko dela, zeren ez dauka lurzorurik jabetzan A-110 (TE) ZAPATEGI eremuan.

Horregatik, Michelin España y Portugal, SAKen jarduera mantentzen den eremuan, hirigintzako betebeharrak eremu horretako antolamendua, erabilerak eta/edo eraikigarritasunak aldatzen direnean zehaztuko dira, une horretan indarrean dagoen hirigintzako legediaren arabera zehazten diren plangintzako eta kudeaketako tresnak tramitatuta.

Sortuko den eremu berrian, hiri lurzoru finkatugabea denez, 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren 25. artikuluan ezarritakoa eta 123/2012 Dekretuan, uztailaren 3koan, hirigintzako estandarrei buruzkoan ezarritakoa kontuan hartuta, estandar hauek guztiak beteko dira:

1. Lurzoruaren 3.010 m² tokiko berdeguneetarako eta espazio libreetarako lagako dira (% 6). 123/2012 dekretuaren, uztailaren 3koaren, hirigintzako estandarrei buruzkoaren 6.2.a artikulua.
2. Aparkaleku publikoak lagako dira.
3. Landaredia: 364 zuhaitz, 100 m²/(t) bakoitzeko 1 zuhaitz. 123/2012

- Sistema local y en general viarios: 5.330m²
- Sistema local fluvial: 1.150m²
- Vegetación: 1 árbol /100m²(t)

Cuarta. Contenido de las obligaciones de cesiones urbanísticas y de sufragar las obras de urbanización del área.

Michelin España y Portugal S.A, declara que la totalidad de la edificabilidad urbanística que le corresponde se materializará en el área A-78 (TE) MITXELIN, debido a que carece de suelo en propiedad en el área A-110 (TE) ZAPATEGI.

Por ello, en el área donde se mantiene la actividad de Michelin España y Portugal, S.A. las obligaciones urbanísticas se definirán en el momento en que se proceda a modificar la ordenación, usos y/o edificabilidades de dicho ámbito, con la tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión que se determine de acuerdo con la legislación urbanística vigente en el momento

En el Área de nueva creación, al tratarse de un suelo urbano no consolidado, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 25 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo y en el Decreto 123/2012 de 3 de julio de estándares urbanísticos que a continuación se relacionan:

1. Cesión de 3.010 m² de suelo destinado a Sistema Local de Zonas Verdes y Espacios libres (6 %). Artículo 6.2.a Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos.
2. Cesión de Aparcamientos Públicos.
3. Vegetación: 364 árboles, 1 árbol por cada 100 m²/(t). (Artículo 6.2.c) del



Usurbilgo Udala

dekretua (6.2.c artikulua).

Arau subsidiarioen aldaketa espedientean antolamendu ezaugarriek ez badute uzten edo larriki zailtzen badute legez eskatzen diren gutxieneko estandarrak zehatz-mehatz betetzea, diferentzia lekualdatuko da edo ekonomikoki konpentsatu beharko da. 123/2012 dekretuaren, uztailaren 3koaren, hirigintza estandarrei buruzkoaren 7.1. artikulua.

4. Hirigintzako ekintzak sortutako gainbalioetan komunitatearen partaidetzagatik % 15eko lagapena. 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren 27.5 artikuluan xedatutakoaren arabera (11/2008 Legeak, azaroaren 28koak aldatu zuen), eremu horretan Udalari ez dagokio jabari osoko oruberik edo partzelarik, eta, beraz, lagapen horren orde, eskudirutan ordainduko da. Lagapen hori ekonomikoki baloratzeko, erabilitako lekukoak eta lagapen horren monetarizazioa 861.189 euroan ezartzen duen balorazio ekonomikoa aurkeztu dira. **(5. ERANSKINA).**

Lortzen den kopurua Birpartzelazio Proiektuan behin betiko zehaztuko da, Arau Subsidiarioak Aldatzeko espedientean adierazten den eraikigarritasunaren arabera, betiere behin betiko onartu ostean, baina hitzarmen honi erantsitako kalkulu ekonomikoan ezarritako lurzoru urbanizatuaren balio berdina aplikatuko da.

% 15a ordainduko da Birpartzelazio Proiektua onartu ostean eta irmoa denean, eta eraikigarritasunaren % 100 lortzen diren partzelen jabeen alde inskribatu aurretik.

Decreto 123/2012.

En el supuesto en que las características de ordenación que se definan en el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias no permitan o dificulte gravemente el exacto cumplimiento de los estándares mínimos legalmente exigidos, la diferencia se deberá de trasladar o compensar económicamente. Artículo 7.1 del Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos.

4. Cesión del 15 % por la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. En virtud de lo establecido en el artículo 27.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, modificado por la Ley 11/2008, de 28 de noviembre, debido a que en el ámbito al ayuntamiento no le corresponde un solar o parcela en pleno dominio, dicha cesión se sustituirá por el abono en metálico. Con la finalidad de valorar económicamente dicha cesión, se adjunta los testigos utilizados y la valoración económica que fija la monetarización de dicha cesión en 861.189 € **(ANEXO nº 5).**

La cantidad resultante se concretará de forma definitiva en el Proyecto de Reparcelación, en virtud de la edificabilidad que se refleje en el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias, una vez aprobado definitivamente, si bien se aplicará el mismo valor de suelo urbanizado establecido en el cálculo económico que se adjunta al presente Convenio.

En abono del 15% se efectuará una vez se apruebe y sea firme el Proyecto de Reparcelación y con carácter previo a que se inscriban el 100% de la edificabilidad a favor de



Usurbilgo Udala

5. Eremuko urbanizazio obra guztiak ordaintzea.
6. USURBILGO Udalari doan lagatzea erabilera publikoa xede duten bide, parke, lorategi eta antzekoetarako lurzoru guztia.

Bosgarrena. USURBILGO Udalaren betebeharrak.

Usurbilgo Udalak hitzarmen hau gauzatzeko helburuarekin, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Tramitatzea eta onartzea, bere eskumenen barnean, A78 (TE) ZAPATEGI eremuko Plangintzako Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeko espedientea. Bertan jasoko dira hitzarmen honetan eta bere eranskinetan adierazitako egiturazko eta xehetasuneko antolamenduaren zehaztapenak.
2. Tramitatzea eta onartzea Hirigintzako Jarduketa Programa, Itunaren Hitzarmena, Birpartzelazio Proiektua eta Urbanizazio Proiektua.
3. Birpartzelazio Proiektutik lortzen diren partzelak aparte utzita, Usurbilgo Udalak partzelak banantzeko lizentziak emango ditu Michelin y Portugal España, SAK Gureak Lanean, SArI besterenduko dizkion partzelak eskualdatzeko eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko.

Seigarrena. Urbanizazioa kontserbatzeko eta mantentzeko erakunde bat sortzea.

los propietarios de las parcelas resultantes.

5. Costear todas las obras de urbanización del área.
6. Cesión gratuita al Ayuntamiento de USURBIL de todo el suelo destinados a viales, parques, jardines etc. cuyo destino sea el uso público.

Quinta. Obligaciones del Ayuntamiento de USURBIL.

El Ayuntamiento de USURBIL, con el objetivo de materializar el cumplimiento del presente convenio se compromete a:

1. Tramitar y aprobar, dentro de sus competencias, el expediente de modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referidas a la Área A78 (TE) ZAPATEGI, que recogerá las determinaciones de ordenación estructural y pormenorizada señaladas en el presente convenio y sus anejos.
2. Tramitar y aprobar el Programa de Actuación Urbanizadora, el convenio de Concertación, el Proyecto de Reparcelación y el Proyecto de urbanización.
3. Independientemente de las parcelas resultantes del Proyecto de Reparcelación, el Ayuntamiento de USURBIL otorgará las licencias de segregación que se precisen para la transmisión e inscripción en el Registro de la Propiedad, de las parcelas que Michelin y Portugal España, S.A. enajenará a favor de Gureak Lanean, S.A.

Sexta. Creación de una Entidad de conservación y mantenimiento de la urbanización



Usurbilgo Udala

Kontuan izanda lagako diren lurzoruen kokapena eta Usurbilgo Udalarentzat horiek mantentzea zaila dela, lurzoruaren jabeek kontserbaziorako erakunde bat sortuko dute, HKEren 68.2 artikulua eta 2/2006 Legearen, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren 197.2 artikulua aplikatuta, hogei urteko eperako.

Zazpigarrena. A-110 (TE) ZAPATEGI eremua kudeatzeko epeak.

Alderdiek adostu dute kudeaketako dokumentuak aldi berean tramitatzea: Hirigintzako Proiektua, Hirigintzako Jarduketa Programa (HJP) eta Birpartzelazio Proiektua, alde batera utzi gabe horiek guztiak ez direla behin betiko onartuko Arau Subsidiarioen aldaketa espedientea behin betiko onartu arte, zeinen edukian arautuko diren egiturazko eta xehetasunezko alderdi guztiak. Hirigintzako Jarduketa Planak (HJP), zehazki, alderdi hauek arautuko ditu:

- Egikaritze unitatearen edo unitateen mugaketa.
 - Egikaritze araubidea (publikoa edo pribatua) eta bere jarduketa sistema.
 - Ekitatez banatzeko proposamena eta hirigintza proiektua aurkezteko epeen zehaztapena.
- Hirigintzako aurreproiektua.
- Urbanizazio obrak eta hala badagokio eraikingintzako obrak egikaritzeko aldi baterako programa definitzea.

Zortzigarrena. Hirigintza prozesuaren «Intuitu Personae» legitimazioa.

Alderdiek hirigintza hitzarmen honen «Intuitu Personae» izaera onartzen dute. Ildo horretan, hitzarmen honen bidez eta hirigintzako dokumentuen bidez hartutako

Teniendo en cuenta la ubicación de los suelos de cesión y la dificultad que conlleva al Ayuntamiento de Usurbil su mantenimiento, los propietarios del suelo constituirán una Entidad de Conservación en aplicación del artículo 68.2 del RGU y el artículo 197.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, durante el plazo de veinte años.

Séptima. Plazos para la gestión del Área A-110 (TE) ZAPATEGI.

Las partes acuerdan la tramitación simultánea de los diferentes documentos de gestión: Proyecto de Urbanización, Programa de Actuación Urbanizadora (PAU) y Proyecto de Reparcelación, sin perjuicio de que sus aprobaciones definitivas no se produzcan hasta que sea aprobado definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias, en cuyo contenido se regularán aspectos de carácter estructural y pormenorizado. El Programa de Actuación Urbanizadora (PAU), en concreto, se regularán, entre otros, los siguientes aspectos:

- Delimitación de la unidad o unidades de ejecución.
 - El régimen de ejecución (público o privado) y su sistema de actuación.
 - Determinación de los plazos para la presentación de la propuesta de equidistribución y del proyecto de urbanización.
- Anteproyecto de urbanización.
- Definir el programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y en su caso de edificación

Octava. Legitimación «Intuitu Personae» del proceso urbanístico.

Que las partes reconocen la condición «Intuitu Personae» de este Convenio Urbanístico. En este sentido, la totalidad de las obligaciones, compromisos y



Usurbilgo Udala

betebehar, konpromiso eta eskubide guztiak idazki hau sinatzen dutenei lotuta daudela ulertuko da, eta USURBILGO Arau Subsidiarioen egungo A-78 (TE) ZAPATEGI eremuari atxikita daudela.

Bederatzigarrena. Aldaketa behin betiko ez onartzearen efikazia eta ondorioak.

Hitzarmenaren eta bertan ezarritako aurreikuspenen efikazia, oro har, USURBILGO Arau Subsidiarioen behin betiko onarpenaren mende dago, aurreko estipulazioetan zehaztutako hirigintzako baldintzetan eta parametroetan.

Onarpen honen ondorioz, aipatutako hirigintza aurreikuspenak aldatuko balira, haren sinatzaileek berriro negoziatuko dute edukia, baldintza berrietara egokituz, haren bidez elkarri onartutako prestazioen oreka berrezartzeko helburuarekin.

Udalaz gaindiko administrazio instantzien ebazpenen ondorioz, arau subsidiarioak aldatzeko espedienteko A-78 (TE) ZAPATEGI eremuko egiturazko eta xehetasunezko antolamenduaren oinarritzko zehaztapenak ez badira behin betiko onartzen, alderdiek ez dute betebeharririk izango.

Hamargarrena.- Ondorioak, iraupena eta azkentzea

Hitzarmena bi urtean egongo da indarrean, baina alderdiek hala nahi badute luzatu ahal izango da, hitzartutako

derechos adquiridos mediante el presente Convenio, y su desarrollo a través de los diversos documentos urbanísticos, se considerarán vinculados e inherentes a los suscribientes de esta escrito y circunscritos a la actual área A-78 (TE) ZAPATEGI de las Normas Subsidiarias de USURBIL.

Novena. Eficacia y consecuencias de la falta de aprobación definitiva de la modificación.

La eficacia de este convenio y de las previsiones establecidas en el mismo se condicionan, con carácter general, a la aprobación definitiva de la modificación de las Normas Subsidiarias de USURBIL en los términos y parámetros urbanísticos que han sido definidos en las estipulaciones precedentes.

En el supuesto de que, como consecuencia de dicha aprobación, se alterasen las previsiones urbanísticas referidas, quienes lo suscriben renegociarán su contenido con el fin de, ajustándose a las nuevas condiciones, restablecer el equilibrio de las prestaciones recíprocamente asumidas mediante el mismo.

En el caso de que, como resultado de resoluciones de instancias administrativas supramunicipales, las determinaciones básicas de ordenación estructural y pormenorizada correspondientes al área A-78 (TE) ZAPATEGI, incorporadas al expediente de modificación de las Normas Subsidiarias no llegaran a alcanzar la aprobación definitiva, las partes quedarán liberadas de cualquiera de las obligaciones que tuviesen

Décima .- Efectos, duración y extinción

El convenio tendrá una vigencia inicial de dos años, si bien podrá ser prorrogado



Usurbilgo Udala

konpromisoak ez badira osoki gauzatzen.

Hitzarmena azkenduko da bere indarraldia amaitzeagatik, helburu guztiak betetzeagatik edo alderdietako baten batek bere gain hartutako konpromisoak ez betetzeagatik.

Hamaikagarrena. Formalizazioa eta jurisdikzioa.

Hitzarmen hau juridiko-administratiboa da. Bertatik sortzen diren auzigaiak, hitzarmena betetzeari edo ez betetzeari, aldatzeari edo ebazteari buruzkoak, USURBILGO Udalak ebatziko ditu. Udalaren ebazpenek administrazio bidea amaituko dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, horretarako legedi arautzailean ezarritako moduan. adostasunarekin perfektionatuko da, gutxienez hogeit eguneko jendaurreko informazio aldia ireki ondoren.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren baliozkotasuna eta indargabetzea.

Hitzarmen hau hirigintza hitzarmena da; beraz, 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren zazpigarren xedapen gehigarriaren hirugarren paragrafoan ezarritakoa betez, alderdien adostasunarekin perfektionatuko da, gutxienez hogeit eguneko jendaurreko informazio aldia ireki ondoren.

2018ko urriaren 17an Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioetako ZAPATEGI A-78 (TE) eremurako sinatutako hirigintza hitzarmena indargabetzen da.

Eta adierazitako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, hiru aletan eta ondorio

por voluntad de las partes, si los compromisos pactados no hubieran sido completamente ejecutados.

El convenio se extinguirá por el transcurso de su vigencia, por el total cumplimiento de sus objetivos, o por resolución debida al incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos.

Undécima. Formalización y jurisdicción.

El presente Convenio tiene carácter jurídico-administrativo. Todas las cuestiones litigiosas que surjan del mismo, de su cumplimiento o incumplimiento, modificación o resolución, serán resueltas por el Ayuntamiento de USURBIL, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa y contra las que misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en los términos previstos en la legislación reguladora al efecto.

Decimosegunda.- Validez del convenio y derogación.

El presente convenio tiene naturaleza de convenio urbanístico por lo que en cumplimiento de lo establecido en el apartado tercero de la Disposición Adicional Séptima de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se perfeccionará, con la prestación del consentimiento de las partes, previa apertura de un período de información pública por plazo mínimo de veinte días.

Queda derogado el convenio urbanístico suscrito para el Área A-78 (TE) ZAPATEGI de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Usurbil, suscrito el 17 de octubre de 2018.

Y en prueba de conformidad de todo lo mencionado, firman las partes el presente convenio por triplicado y a un solo efecto,



Usurbilgo Udala

bakarrerako, USURBILLEN, 2021eko | en USURBIL a XX de xxxxxxx de 2021.
xxxxxxxaren XX(e)(a)n.

USURBILGO Udala,
alkate-presidentea.

USURBILGO Udala,
idazkaria.

Michelin España Portugal, S.A,
José Alberto Díaz Calatrava.

Balfer Norte, S.L.
Marín Balda Goñi

Gureak Lanean, S.A.
Iñaki Alkorta Andonegui

Udal idazkariak dagokion txostena egin du eta ez du eragozpenik ikusi Hirigintza Hitzarmenari hasierako onespena emateko. Izapidetzeari dagokionez, honako urrats nagusiak aipatu ditu:

- Aurkeztutako hirigintza-hitzarmena eta txosten teknikoak ikusita, udalak baiezkoa edo ezezkoa eman diezaioke hasierako onespeneri. Hirigintza-hitzarmena onartzeko eskumena, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.c) artikulua arabera, plenoari dagokio.
- Hasierako onespeneri buruzko erabakia hartzen denean, hirigintza-hitzarmena bere osotasunean argitaratuko da GAOean, eta 20 eguneko epea irekiko da, gutxienez, jendaurrean jartzeko eta alegazioak jasotzeko.
- Alegazioen bat baldin badago, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, plenoak behin betiko onspena emango dio hirigintza-hitzarmenari eta Alkatea ahalmenduko du hitzarmena sinatzeko udalaren izenean.
- Hirigintza-hitzarmenaren behin betiko onspeneri buruzko erabakia GAOean argitaratuko da.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko irailaren 23an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suarezren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean



Usurbilgo Udala

S.A., Balfer Norte S.L. eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena hasierako izaeraz ontzat ematea.

BIGARRENA: Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriko 8. puntuan ezarritakoa betetze aldera, espedientea jendaurrean jartzea 20 egunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- MOZIOA: DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK. HAIEN IRUZURRAREN AURREAN, BURUJABETZA ENERGETIKOA!

Alkateak adierazi du aurreko Antolakuntza batzordera eraman zutela baina ez zutela diktaminatu, beraz, lehenengo plenoan tratatu edo ez bozkatu behar dutela.

Batzarkideek, aho batez, mozioa tratatzea erabaki dute.

Beñat Larrañagak hitza hartu du eta adierazi du denek dakitela azken aldi argindarraren prezioa ze igoera jasaten ari den eta horren harira aurkeztu dutela mozioa.

Jarraian, mozioa irakurri du.

“DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrek pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuak, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatua gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatzeko duten merkatuaz ari gara, bi alderdiotako presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.



Usurbilgo Udala

Horrela eraiki zuten haien neurria eginiko merkatu elektrikoa, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatzan dute merkatua, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioko enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgyk, milioi askoko irabaziak metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar konpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoien presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarria hartu duenean, enpresa xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merkatuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu gaur oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galizak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori gertatzea ahalbidetzen du. Gaur- gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrek enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izateak oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanorri eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra errespetatzeko, oinarritzko ondasun eta eskubide gisa.

Hori dela eta, Usurbilgo Udalak honako hau adierazten du:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larri salatzen du



Usurbilgo Udala

2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra oinarritzko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.
3. Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernua interpelatzeko dugu, lankidetzan publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzala presazko izaerarekin.
4. Usurbilgo Udalak urriaren 8an, 22:00etatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazolajotzeko deialdiarekin bat egiten du.”

Josune Urkolak adierazi du mozio honen aurrean abstenitu egingo direla eta gaineratu du ez dutela kontra-mozio bat aurkeztu baina argudioetarako EAJK prestatu duen mozioaren testua irakurriko duela.

Josune Urkolak testu hau irakurri du:

“Trantsizio energetikoari aurre egiteko lanak – Nahiz eta termino hori garai hartan normalizatuta ez egon – Bultzatu zuen Eusko Jaurlaritza duela ia 40 urte Energiaren Euskal Erakundea sortzera. Petrolioarekiko mendekotasuna garrantzitsua zen, eta da oraindik ere. Ordutik, Euskadik energia berriztagarriak, eraginkortasuna eta baliabide propioen aldeko apustua bultzatzen ditu, energia-eredu berri baterako trantsizio-prozesu horri aurre egiteko.

Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriagoa den eredu baterantz migratzen jarraitzen du. Eredu horrek kalitatezko hornidura lehiakorra bermatuko du, berriztagarrien ekarpen gero eta handiagoan oinarrituta eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuta. Herritarrak gero eta gehiago jabetzen dira klima-aldaketak dakarren erronkaren erantzule ere badirela. Honek, gaur egun, bultzada handia ematen die Euskadin energia demokratizatze eta ingurumenarekiko berme osoz egiteko egokitu ditzakegun politikiei.

Euskadi energia-eskaera handiko herrialdea da, batez ere industria-izaeragatik, baina garraioa da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (kontsumitzen den energia guztiaren % 43). Enpresek merkatu elektrikorako sarbidea behar dute, baldintza lehiakorretan, ekonomiaren zati handi bat eta kalitatezko enplegu asko horren mende daudelako.

Balantzaren beste aldean, beste errealitate bat dugu: energia gutxi ekoiztea. Horrek kanpora erostera behartzen gaitu, eta beste batzuek ezartzen diguten prezioan egitera. Autosufizientzia eta burujabetza energetiko falta horrek elektrizitatearen prezioari eragiten dio, gure etxeetako argi-fakturari, batez ere ahulenei, eta gure enpresei eta haien lehiakortasunari.

Euskadin gas propioa ez kudeatzeari buruz hartutako erabakiak gure energia-eskariaren prezioak gora egitea ekarriko du datozen hilabeteetan; izan ere, Araban daukagun gasa ekoizteari uko egin bazaio ere, EAEko familiek gas bat kontsumitzen dute, ondorioz,



Usurbilgo Udala

inportatu egiten da, horrek suposatzen duen ekonomia- eta ingurumen-kostuarekin inportatzen da.

Demagogia- eta amorrudiskurtsoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialetatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegiatze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak barne, eta energia aurrezteko funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun energetikorako bidean.”

Ondoren, Patxi Suárezek hitza hartu du eta esan du ezer baino lehen bere kezka agertu nahi duela elektrizitatearekin gertatzen ari denarekin.

Autokritika egiten hasiko dela esan du, badakiela dio PSOEn gobernua bat hasi zela elektrizitatea pribatizatzen, ez dakiela dio garai hartan benetan pentsatzen zen kontsumitzaileok aukera gehiago izango genituela edo ez, baina begibistakoa dela dio emaitzak behintzat ez direla espero zirenak izan. Hala ere, Patxi azpimarratu du PSOEn gobernua ez zela izan elektrizitatea erabat pribatizatu zuena, baizik eta PPren gobernua izan zela Aznar presidente zela.

Aipatzen dela dio Gobernuak neurri koiunturalekin aritzen dela, baina berak neurri koiuntural horiei garrantzia eman nahi diela esan du. Adibide gisa aipatu du BEZa %21etik %10era jaitea, neurri hau ia 30 milioi kontsumitzaileontzat onuragarria izango dela. Antzeko neurri koiunturalak izango direla esan du etxe zaugarrien babesak, hornidura eteteko debekua, bono soziala eta bono sozial termikoa eratzea, eta hauek guztiek 1,2 milioi etxe babesten dituztela gaineratu du. Beste proposamen bat dela dio murriztea “*dividendo del carbono*” delakoa, honek 650.000 kontsumitzaileei eragin diezaikeela esan du.

Jarrantu du esanez neurri koiunturalak ez ezik, Gobernuak egiturazko neurriak ere bultzatzen ari dela, hala nola, energia berriztagarrien aldeko apostua egiten, Zapatero presidente ohiak egindako apostuari jarraituz, eta horregatik etorkizuneko merkatuan aurreikusita dagoela dio Espainiak ordainduko dituela prezio txikiagoak Alemaniak eta Frantziak baino.

Gobernuak autokontsumoaren aldeko apostua ere egiten ari dela esan du eta ja 1.120 milioiko dirulaguntzak onartuta daudela.

Bestetik, gaineratu du sektore elektrikoan kompetentzia gehiago berreskuratzeko planak biltzen dituela funtsak.

Dena den, hasieran esan duen bezala gertatzen ari denak kezkatzen du, badakiela dio agian direla nahikoak, eta ikusiko dutela dio zerk funtzionatzen duen eta zerk ez duen funtzionatzen, zer alda dezaketen edo ez, baina mozioarekin ez dagoela ados adierazi du. Ulertzen duela dio mozio honekin beraien jarrera politikoa adierazi nahi dutela baina berak ere bere jarrera politikoa adierazi nahi du, baina espero du Madrilgo Parlamentuan alderdien arteko desadostasun hauek konpontzea.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak erantzun dio PSOEk pribatizazio prozesu guzti honetatik izan duen arduraz desmarkatzea nahiko kurioa iruditzen dela. Gainera, orain ere gobernuan dauden honetan, gertatzen ari den honekiko inolako erremediorik ez jartzea, hartu dituzten neurri horietatik haratago, errealitate bat badela dio prezio hori gora doala egunetik egunera.

Harrigarria egiten zaiola azpimarratu du KPlagatik ordenantza fiskaletan KPIren azpitik igotzera doazen honetan %1,5a, non kasu honetan errekaratzen den hori badakiten gero herrian eta herritarrengan errebertitzen dela, Patxi horren kontra egin duela eta, aldiz, izugarrizko epelkeriz Patxi entzuten duela dio enpresa pribatuek hainbat eta hainbat irabazi dituztenean, aldi berean hainbat eta hainbat herritarrek horrenbeste arazo dituztenean argindarra edo orain negua datorrenean gasa eta berotasuna edukitzeko etxean.

Josune Urkolari zuzenduz, Beñat Larrañagak esan dio demagogia ariketa bat egiten ari direla esan duela eta horren inguruan hainbat aipamen egin nahiko lizkioketela esan du. Josunek energia berriztagarriak aipatu dituela eta esan beharra dagoela dio gaur egun ekoizpena %8-%9an dabileta eta azken 10 urteetan ez dela igoera nabaririk egon kasu honetan. Energiaren Euskal Erakundea sortu zen eta esan duen bezala enpresa energetiko publikoa da, baina gaur egun ez duela energiari merkaturatzen eta iruditzen zaie gobernuak horren aldeko apustua egin beharko lukeela.

Bestalde, 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legea onartu zela aipatu du eta bertan EAJ eta EH Bilduren adostasunez xedapen gehigarri bat aitortu zela, non aipatzen zen hurrengo aurrekontuetan 100 milioiko funtsa jarriko zela udalen eskuetara 0 interesekin eta konpromiso horretatik ia bi urte pasa diren honetan esan beharra dagoela dio ez dagoela martxan.

Josunek klima aldaketaz ere hitzegi duela eta Beñatek esan du argi dagoela gaur egun gertatzen ari diren hainbat fenomenotan nabaria dela eragina dagoeneko begibistakoa dela eta isurketetan ez dagoela jentsierarik edo ez nabarmenik behintzat. 1990 urtea hartzen dela errentziazko urtea esan du eta ordutik hona %11 jeitea lortu dela, baina esan beharra dagoela dio Europar ehuneko hori %24an jarrita dagoela. Trantsizio energetikoaz hitzegiten dutela dio eta guztiak ados egongo direla, baina demagogiaz hitzegiten dutenean begibistan dagoela esan du beste asko baino atzerago daudela, sekulako atzerapenak daudela eta agian ez dela behar bezain beste indar jartzen aipatutako guzti horiek aurrera eramateko.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa eta Itziar Basterrika Unanue.

Kontrako botoak: Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.



Usurbilgo Udala

Alkateak jakinarazi du bat egiten dutela eta herria ez dutela ilunpetan utziko segurtasunagatik, baina herriko hainbat eremu itzaliko dituztela.

9.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskaerarik.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:40etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.